

IKASGAIAREN IRAKASKUNTZA-GIDA

Titulua: ERIZAINZAKO GRADUA	Mota: Hautazkoa
Ikasgia: Sexualitatea. Erizaintzaren ikuspegia	Kronograma: 2. lauhilekoa
Kodea: 28039	Hizkuntza: Euskara/Gaztelania
Ikasgaiaren deskribapena eta testuingurua Hautazko irakasgai bat da, Erizaintzako Gradua titulazioaren seigarren seihilekoan ematen dena. Honako gaitasuna eskaintzen dio ikasleriari: <ol style="list-style-type: none"> 1. Sexualitatea pertsonaren garapen integrala osatzen duen prozesu ebolutibo eta dinamikotzat hartzea. 2. Pertsonen sexu-esferari heltzean eragina duten alderdi propioez jabetzea, eta gaitasunak garatu ahal izatea, hala balorazioan nola erizaintzako zainketa-planetan gizabanakoek hainbat egoeratan duten sexu-dimentsioa integratzeko. 	ECTS kredituak: 4,5 Kurtsoa: 3. maila
Sartzeko eskakizunak / gomendioak Sartzeko baldintzarik gabe.	

IRAKASLEAK

Tel.

Helbide elektronikoa

IRAKASLEAK	Tel.	Helbide elektronikoa
Ikasgaiaren arduraduna M ^a Dolores Calle Calle	945 218085	mdolores_calle@ehu.eus mariadolores.callecalle@osakidetza.eus
Euskarazko irakasleak Eva Pereda Pereda	945 219001	eva.pereda@ehu.eus eva.peredapereda@osakidetza.eus

GAITASUN ESPEZIFIKOAK

- G1. Sexologia Substantiboaren esparrua ulertzea sexualitateari osasun-eremuan arreta emateko erreferente gisa.
- G2. Sexualitatea ikuspuntu positibotik lantzea duen garrantziaz jabetzea, ulerkortasun-jarrerak sustatuz.
- G3. Subjektu sexuatuaren (gizonen, emakumeen eta kategoria horiekin identifikatzen ez direnen)sexualitatea zaintzeak eta babestek haien ongizate integrala mantentzeko duen garrantziaz hausnartzea.
- G4. Balorazioan zein erizaintzako zainketetan gizabanakoen dimentsio sexuala eta erotika txertatzea, eragina izan dezaketen norberaren alderdiez (jarrerak, etab.) jabetuz.

IKASKUNTZAREN EMAITZAK

- IE 1. Sexologia substantiboari eta erizaintzan duen aplikazioari buruzko oinarriko ezagutzak erakusten ditu.
- IE 2. Sexualitatearen dimentsio soziokulturalaren inguruan hausnartzeko gaitasuna eta ikuspegi kritikoa erakusten ditu.
- IE 3. Giza aniztasun sexuala baliotzat hartzen du.
- IE 4. Gaixotasun eta farmako jakin batzuek sexualitatean, erotikan eta bikotean duten eragina identifikatzen eta argudiatzen du.
- IE 5. Praktika klinikoaren egoera batean, pertsona erabiltzaileen arlo sexuala eta erotikoan balorazioa eta zainketa-plana gauzatzen ditu.
- IE 6. Praktika klinikoaren egoera batean, pertsona erabiltzaileen arlo sexuala eta erotikoan balorazioa burutzeko eta erizaintzako jarduerak abian jartzeko trebetasuna erakusten du.

EDUKIAK

I. UNITATEA: OINARRI SEXOLOGIKOAK

- 1.1. Sexualitatearekiko jarrerak
- 1.2. Sexologia Sustantiboaren oinarriko kontzeptuetan sakontzea: Giza Izate Sexuala

II. UNITATEA: SEXUAZIOA

- 2.1. Sexuazio-prozesua
- 2.2. Sexu-identitatea: transexualitatea eta beste identitate-aniztasun batzuk
- 2.3. Anatomia sexuatu. Ugalketaren eta plazeraren fisiologia

III. UNITATEA: TESTUINGURU KULTURALA

- 3.1. Sexu moral kulturala
- 3.2. Kultura eta sexualitatea: aldagai kulturalak migratzaileen sexualitatearen arretan
- 3.3. Generoa eta osasuna

IV. UNITATEA: SEXUALITATEAK

- 4.1. Sexualitate ebolutiboa: ezaugarriak bizi-etapa ezberdinetan
- 4.2. Dibertsitate funtzionala eta behar bereziak: begirada bat gaitasunei eta beharrei

V. UNITATEA: ESKAERA EROTIKOEI ETA BEHAR SEXUALEI ARRETA EMATEA

- 5.1. Osasunerako hezkuntza: arriskuen prebentzioa. Sexu- eta ugalketa-eskubideak
- 5.2. Zailtasun sexualak eta erotikoak ulertzen
- 5.3. Sexu-zailtasun eta zailtasun erotikoetatik sortutako zainketa-eremuak
- 5.4. Gaixotasun-prozesuen eta farmako-kontsumoen ondoriozko sexu-zailtasunetatik eta zailtasun erotikoetatik sortutako zainketen eremuak. Erizaintzako balorazioa eta esku-hartzea

GAI-UNITATEA	IRAKASLEAK	KLASE MAGISTRALEN ORDUAK	IKASGELAKO PRAKTIKAK
1	Eva Pereda Pereda	4	2
2	Eva Pereda Pereda	6	3
3	Eva Pereda Pereda	6	3
4	Eva Pereda Pereda	4	4
5	Eva Pereda Pereda	6	4
GUZTIRA		26	16

METODOLOGIA

Planteatutako gaitasunak eskuratzeko, metodologia honi jarraituko zaio:

- **Klase magistralak:** klase teorikoak talde handia teoria irakasteko.
- **Ikasgelako praktikak,** eskola magistraletan azaldutako teoriaren alderdi praktikoak osatzeko. Era berean, ikasleek eginiko lanen emaitza nagusiak azalduko dira.

LAN PRESENTZIALA (42 ORDU)		
Klase magistrala	Mintegia	Ikasgelako praktikak
26	0	16

LAN EZ-PRESENTZIALA (70,5 ORDU)	
Bakarkako lana	Talde-lana
25	45,5

GUZTIRA	
ECTS	4,5
ORDUAK	112,5

EBALUAZIO-SISTEMAK

OHIKO DEIALDIA: EBALUAZIO JARRAITUKO SISTEMA

Eskolara joatea derrigorrezkoa da. Saiotara ez joateko justifikatutako arrazoiak hauek dira, betiere ziurtagiria aurkezten bada: gaixotasuna, bigarren mailara arteko odol-ahaidetasuneko senitartekoen gaixotasuna edo heriotza eta nahitaezko eginbeharrak betetzea, baldin eta horiek saioaren ordutegiz kanpo egin ezin badira edo ezinbesteko arrazoiak direla-eta.

Azken kalifikazioa emateko, planteatutako jarduera guztiak ebaluatu eta gainditu behar dira, egin beharreko jarduera bakoitzaren balioaren % 50eko gehiagoko notarekin.

- BANAKAKO LANAK % 15
- TALDEKO LANAK % 75
- IKASGELAN PARTE-HARTZEA % 10

Taula honetan laburbiltzen da gaitasunen, ikaskuntzaren emaitzen, jardueren eta ebaluazio-sistemaren arteko erlazioa:

GAITASUNAK	IKASKUNTZAREN EMAITZAK	JARDUERA	EBALUAZIOA	AZKEN KALIFIKAZIOAREN %
G1, G3	IE1, IE3, IE4	Talde-lana	- Idatzizko aurkezpena eta ahozko aurkezpena	% 35
G2, G3, G4	IE4, IE5, IE6	Talde-lana	- Idatzizko aurkezpena eta rol-jokoa	% 40
G1, G2, G3	IE 1, IE2, IE3	Bakarkako lana	- Idatzizko aurkezpena	% 15
G2, G3	IE2, IE3	Irakurketak, eztabaida	- Gelan parte-hartzea	% 10

EBALUAZIO JARRAITUARI UKO EGITEA

Ebaluazio jarraituko sisteman parte hartu duten eta azken ebaluazioko sistemaren bidez ebaluatuak izan nahi duten ikasleek idatziz adierazi beharko diote ikasgaiaren irakasle arduradunari ebaluazio jarraituari uko egiten diotela. Horretarako, 9 asteko epea izango dute ikasgaiaren hasieratik zenbatzen hasita, zentroko egutegi akademikoaren arabera, 2017ko martxoaren 13ko EHAA n argitaratutako ebaluazio-sistemaren 8. artikuluan jasotakoari jarraikiz. Eskatutako lanak egiten ez badira, «*Ez aurkeztua*» kalifikazioa jasoko du ikasleak.

OHIKO DEIALDIA: AZKEN EBALUAZIOKO SISTEMA

Azken ebaluazioa ebaluazio jarraituaren salbuespena da ebaluazio jarraitua egin ezin duten ikasleentzat. Justifikatutako arrazoiak direla-eta ebaluazio jarraituko sisteman parte hartu ezin duten ikasleek amaierako proba bakarra eskatu ahalko dute, zeinak ikasgaiaren notaren % 100 balioko duen. Hauek dira justifikatutako arrazoi horiek dira: lan-arrazoiak, genero indarkeriaren biktimak, erditzea, adopzioa, harrera edo 3 urtetik beherako seme-alabak norbere ardurapean izatea, mendekotasuna duen senidea zaintzea, ikasleak % 33ko ezintasuna edo handiagoa izatea, goi-mailako kirolaria izatea, bidaiatzea edo dedikazio handia eskatzen duten jarduera artistikoetan/kulturaletan aritzea, beste goi-mailako ikasketa batzuekin bateratzea, kargu politikoekin bateratzea, jarduera sindikalak izatea, ikasleen ordezkarietan aritzea, GKEak edo beste batzuk.

Amaierako ebaluazioan, ikasleek ebaluazio-jarduera hauen bidez frogatu beharko dute zer gaitasun lortu duten:

- BANAKAKO LANAK % 100

Taula honetan laburbiltzen da gaitasunen, ikaskuntzaren emaitzen, jardueren eta ebaluazio-sistemaren arteko erlazioa:

GAITASUNAK	IKASKUNTZAREN EMAITZAK	JARDUERA	EBALUAZIOA	AZKEN KALIFIKAZIOAREN %
G1, G2, G3	IE1, IE3, IE4	Bakarkako lana	- Idatzizko aurkezpena eta ahozko aurkezpena	% 40
G2, G3, G4	IE4, IE5, IE6	Bakarkako lana	- Idatzizko aurkezpena eta ahozko aurkezpena	% 45
G1, G2, G3	IE1, IE2, IE3	Bakarkako lana	- Idatzizko aurkezpena	% 15

Ebaluazio-sistema honetan parte hartzeko, ikasle bakoitzak ebaluazio jarraituko sistemari uko egiteko idazki bat aurkeztuko dio ikasgaiaren irakasle arduradunari, aurtengo ikasturteko ikasgaiari dagokion seihilekoaren 9. astea baino lehen. Eskatutako lanak egiten ez badira, «*Ez aurkeztua*» kalifikazioa jasoko du ikasleak.

EZOHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKOA

Ohiko deialdian ikasgaia gainditzen ez duten ikasleek, aukeratu duten ebaluazio-sistema edozein dela ere, eskubidea izango dute ezohiko deialdiaren azken ebaluazioko proba osatzen duten azterketetara eta ebaluazio jardueretara aurkezteko.

Halakoetan, jarduteko hainbat aukera daude:

1. Ezohiko deialdian, ikasgaiaren ebaluazioa azken ebaluazioko sistemaren bidez soilik egingo da.
2. Ezohiko deialdiaren azken ebaluazioko probak barne hartuko ditu zehaztutako ikaskuntzaren emaitzak ebaluatu eta neurtzeko behar diren azterketa eta ebaluazio-jarduera guztiak, ohiko deialdian ebaluatu ziren modu berean. Ikasturtean zehar ikasleek lortutako emaitza positiboak gorde ahalko dira. Ikasturtean zehar egindako ebaluazio jarraituaren bidez emaitza negatiboak lortu badira, emaitza horiek ezingo dira gorde ezohiko deialdirako, eta ezohiko deialdiko azterketak edo probak kalifikazioaren % 100 balioko du.
3. Ohiko deialdian zehaztutakoa ezohiko deialdian ere beteko da. Ohiko deialdian gainditu diren gaitasunen nota gordeko da.

Eskatutako lanak egiten ez badira, «*Ez aurkeztua*» kalifikazioa jasoko du ikasleak.

INFORMAZIO-ITURRIAK

Oinarrizko bibliografia

- * Amezúa E. El sexo: historia de una idea. Revista de Sexología. 2003;115-6.
- * Buehler S. What every mental health professional needs to know about sex. 2. ed. Springer; 2017.
- * Castelo-Branco C, Molero F. Manual de sexología clínica. Madrid: Médica Paramericana; 2019.
- * De la Cruz C. Nueva Educación de las Sexualidades. Madrid: UCJC; 2010.
- * Landarroitajauregi J. Genus: genitales y generación. Valladolid: ISESUS; 2013.
- * LeVay S, Baldwin JI, Baldwin JD. Discovering human sexuality. 4. ed. Oxford: Oxford University Press; 2018.
- * López F. Mitos viejos y nuevos sobre sexualidad: El rol de la educación sexual. Madrid: Pirámide; 2020.
- * Rubio Auriolas E. Lo que todo clínico debe saber de Sexología. Mexico DF: Edición y Farmacia SA de CV; 2014.
- * Saez Sesma S. Cuando la terapia sexual fracasa. Aportaciones sexológicas para el éxito. Madrid: Fundamentos; 2006.

Sakontzeko bibliografia

- * Alonso I, Gallarin, M. Generoa aztergai psikologian: egungo ikerketak. Bilbo: Udako Euskal Unibertsitatea; 2009.
- * Amezúa E. Educación de los Sexos: la letra pequeña de la Educación Sexual. Revista de Sexología 1999;95-6.
- * Amezúa E. El Ars Amandi de los sexos: la letra pequeña de la sex therapy. Revista de Sexología 2000;99-100.
- * Botella J, Fernández de Molina A. La evolución de la sexualidad y los estados intersexuales. Madrid: Díaz de Santos; 1997.
- * Cabello F, Lucas M. Manual médico de terapia sexual. Madrid: Fundamentos; 2009.
- * Constantini E, Villari D, Filocamo MT. Female sexual function and dysfunction. Springer; 2017.
- * De la Cruz C. Sexualidades diversas, diversas como todas. Madrid: Fundamentos; 2018.
- * Ehrenreich B, English D. Sorginak, Emaginak eta Erizainak. Iruñea: Katakarak; 2019.
- * Estupinya P. S=EX2. La ciencia del sexo. Barcelona: Debate; 2013.
- * Hyde JS, Delamater K. Understanding human sexuality. 14. ed. New York: McGraw Hill; 2020.
- * Landarroitajauregi J. Reflexiones críticas para sexólogos avezados. "Para una epistemología sexológica". Valladolid: ISESUS; 2016.
- * López F. Estilos amorosos ¿De qué depende nuestra biografía sexual y amorosa? Madrid: Pirámide; 2022.
- * López F. Sexualidad y afectos en la vejez. Madrid: Pirámide; 2012.
- * López F. La educación sexual. 2. ed. Madrid: Biblioteca Nueva; 2009.
- * Malon A; Martínez F; Amezuza E. La violencia entre los sexos: una aportación desde la sexología. Revista Española de Sexología. 2003;120.
- * Rathus SA, Nevid JS, Fichner-Rathus L. Sexualidad Humana. 6. ed. Madrid: Pearson-Prentice Hall; 2005.
- * Saez Sesma S. Sexo Básico. De los genitales al cerebro, de la fecundación a la vejez. Madrid: IUNIVES; 2010.

Aldizkariak

- * Anuario de Sexología.
- * Archives of Sexual Behavior.
- * Attachment & Human Development.
- * Culture Health & Sexuality.
- * International Journal of Sexual Health.
- * Journal of the History of Sexuality.
- * Journal of Homosexuality.
- * Journal of Sex Research.
- * Journal of Social and Personal Relationships.
- * Psychology & Sexuality.
- * Revista desexología.
- * Sexual and Relationship Therapy.
- * Sexual Health.
- * Sexualities.
- * Sexuality and Disability.
- * Sexuality Research and Social Policy.

Interneteko helbideak

- * Agenda Euskadi Basque Country 2030 (<https://www.euskadi.eus/pdf/2030-agenda-garapen-iasangarria-desarrollo-sostenible-basque-country.pdf>)
- * AEPS: Asociación Estatal de Profesionales de la Sexología (www.aeps.es)
- * AESC: Asociación Española de Sexología Clínica (www.aesc.com.es)
- * Centro de documentación sobre prevención y maltrato infantil y adolescente: (www.bienestaryproteccioninfantil.es/)
- * FELGTB: Federación Estatal de Lesbianas, Gais, Trans y Bisexuales (<https://felgtbi.org/>)
- * FESS: Federación Española de Sociedades de Sexología (www.fess.org.es)
- * ILGA: The International Lesbian, Gay, Bisexual, Trans, and Intersex Association (www.ilga.org)
- * Kinsey Institute at Indiana University (www.kinseyinstitute.org)
- * NIH-SGMRO: Sexual & Gender Minority Research Office of the National Institutes of Health (www.dpcpsi.nih.gov/sgmro)
- * SEISEX: Sociedad Española de Intervención en Sexología (www.seisex.com/)
- * Sexu- eta Ugalketa- eskubideei buruzko IPPFren gutuna. IPPF. Londres 1995 (https://www.ippf.org/sites/default/files/ippf_sexual_rights_declaration_spanish.pdf)
- * SIECUS: Sexuality Information and Education Council of the United States (www.siecus.org/)
- * Society for Scientific Study of Sexuality (www.sexscience.org)
- * WAS: World Association Sexual Health (<https://www.worldsexualhealth.net/>)
- * WPATH: World Professional Association for Transgender Health (www.wpath.org)

OHARRAK

Ikasturtearen hasieran, ikasgaiarekin lotutako dokumentazioa jarriko da ikasleen eskura eGelan.

TUTORETZAK

Irakasgaiako irakaslearekin tutoretza-eskaerak posta elektronikoz izapidetu beharko zaizkio eva.pereda@ehu.eus irakasleari, eta lehentasunez 3-4 ikasleko talde batentzat eskatuko dira. Ez daude eskola presentzialen absentiak ordezkatzera bideratuta.